

GIPUZKOAN	4.088	NAFARROAN	188
postibito berri	hildako EAEn	postibito berri	
57.182	128	66.140	40
postibito guztira	UCIn EAEn	postibito guztira	UCIn Nafarroan

HERRIZ HERRI POSITIBOAK AZKEN 14 EGUNETAN
ARANON 0, ASTIGARRAGAN 65 (+4), GOIZUETAN 0, HERNANIN 95 (+14)

Parte hartze prozesua jarri da abian, Sagardoetxearen etorkizuna erabakitzeko

Sagardoetxearen etorkizunaz hausnartzeko, parte hartze prozesua jarri dute abian Astigarragako Udalak eta Sagardun Partzuergoak, Elhuyarrekin elkarlanean.

ASTIGARRAGA SAGARDOETXEA

Hamabost urte bete dira jadanik, Astigarragako Sagardoetxea sortu zenetik. Zehazki, 2006ko irailean ireki zituen ateak eta orduz geroztik asko dira bertan aurrera eramandako ekintza, baita bertara hurbildutako bisitak ere. Sagardun Partzuergoak azaldu du, 12.000 bisita izan dituela Sagardoetxeak urtean, «eta hori ikusgarria da». Eta urte hauetako hazkundera kontutan hartuta, Sagardoetxearen kudeaketan parte hartzen dutenen artean honen bilakaez hausnartu beharra dagoela ikusi du Astigarragako Udalak, eta honakoa adierazi du: «Sagardoetxearen etorkizuna erabaki nahi dugu, izan ere, 15 urte beteko ditu Sagardoetxeak datoren irailean. Ibilbide luzea egin du, eta hainbat zerbitzu eskaini ditu. Hala ere, konturatu gara bidegurutze batean gaudela. Alde batetik nahiko genuke jakin zer egin behar dugun Sagardoetxearekin, eta beste alde batetik, aurrerapauso bat eman».

Hausnarketa prozesu hau, Astigarragako herritarrekin egin nahi du Udalak. Lehen fase honetan, Sagardoetxearen ibilbidea ezagutu eta gaur egungo egoeraren azterketa partekatua bideratu nahi dute, «etorkizunera begirako eszenatoki desberdi-



Astigarragako Udalak, Sagardun Partzuergoarekin parte hartze prozesua jarri du abian, Elhuyarrekin elkarlanean.

nak landu eta eraikitzeko asmotan». Horrez gain, bigarren fase bat ere badago, Sagardoetxearen etorkizunaz herri galdeketa bat egitea, hain justu.

Hausnarketa prozesua, Elhuyarrek bideratuko du eta Astigarragako Sagardoetxearen etorkizuna erabakitze oinarriak ezartzea eta herri galdeketerako aurrelana egitea du helburu. Gainera, hausnarketa prozesu horretan parte hartzeko modu eta espazio desberdinak aurrekusi dituzela aipatu du Elhuyarrek.

Alde batetik, hausnarketa taldea, zein Astigarragako eragile eta herritarrek osatuko duten, «guztira 25 lagunek parte hartzea aurreikusten dugu eta talde honen egiteko Sagardoetxearen gaur egungo egoeraren analisitik etorkizunerako eszenatoki desberdinak lantzea da, beti ere, entzute eta eztabaidatze ariketa oinarri hartuta» dio Elhuyarrek.

Bestalde, herritarrei zabalduko saioak izango dira, eta kasu honetan, Sagardoetxearen



Atzo aurkeztu zituzten parte hartze prozesuaren nondik norakoak, Udalean.

gaur egungo egoera aurkeztu, etorkizunera begira, hausnarketa taldeak landutako oinarriak «partekatu eta kontrastatu eta herritarren ekarpen eta proposamenak jasotzea» izango dute helburu.

Hausnarketa taldearen lehen saioa, apirilaren 22an izango da, Astigarragako kultur etxe zaharrean, eta bigarrena maiatzaren

lehen asterako aurrekusi dute. Herritarrei zuzendutako kontraste saioak maiatzeko bigarren hamabostaldian izango direla ere azaldu dute. Herritarren iritzia eta usteak jaso nahi ditu Astigarragako Udalak, eta honakoa azaldu du Xabier Urdangarín alkateak: «15 urte hauen mugarria polita da gogoeta bat egiteko, etorkizuneari pentsatzeko». **K**

Zinea asteburuan, Biterin

HERNANI ZINEA

Asteburu honetan ere zinea izango da Hernanin. Bihar eta etzi, 19:00etan, *Non dago Mikel?* proiektatuko dute, Mikel Zabaltzaren hilketari buruzko dokumentala. Astelehenean ere ikus-entzunezko bera izango da, ikuslearen egunean, arratsaldeko 16:30etan. Haurrentzat, beriz, *Los lunnis* pelikula proiektatuko da gaur eta bihar, 16:00etan.

Sinadura bilketa, gaur

ASTIGARRAGA DBH

DBH ikastetxearen aldeko sinadura bilketa antolatu da gaur, Joseba Barandiaran plazan, arratsaldeko 17:00etan. Datorren ostiralean ere izango da horretarako aukera, hilaren 23an, Herri Eskola parean, arratsaldeko 16:00etan.

Bazkide batzarra, Santa Barbara elkarteak

HERNANI SANTA BARBARA ELKARTEA

Etzi, goizeko 10:30etan, Santa Barbara elkarteak, bazkideen ohiko batzarra antolatu du, eta kiroldegiko frontoi estalian egingo da. Batzarreko antolatzailerak, bazkidei bertaratzeko deia luzatu diete.

Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

HERNANI PRESOKA

Gaur arratsaldeko 19:00etan jarri dute hitzordua, euskal presoen senideek eta lagunek ostiraleko kontzentrazioarako. Zinkoenean izango da, eta honakoa adierazi dute: «herriko preso eta iheslarien eskubide guztiak errespetatuak izan behar dute».

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkologa, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

Hernaniko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzarrek 2021eko martxoaren 30ean egindako bilkuran hasierako onespena eman zion ondorioetarako Tansen Ordenantza Fiskalen Aldaketari.

Zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduerak egiteagatik tasak.

2021/2022 Ikasturteak, "HERNANI" MUSIKA ESKOLA; KANTUZ MUSIKA ESKOLA; KULTURA ARLOKO

IKASTAROA; UDAL EUSKALTEGIA, KIROLDEGIKO ZERBITZUAK, UZTAILEKO UDALEKUAK ETA HIRIBUSA

Akordio horiek eta espedienteak Udala honetako Errenta Zerbitzuan egongo dira ikusgai 30 egunez, nahik duenak bidezko jotzen dituen erreklamazioak aurkezteko. Epe hau kontatzen hasiko da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (68 zk. 2021eko apirilaren 15) argitaratu eta hurrengo egunetik.

Informazioa ere badago Interneten www.hernani.eus/eu/arauk-eta-erabakiak/jendaurrean-jartzea.

Hala jakitera ematen da 11/89 Foru Arauaren 16.2 artikulua ezartzen duena betetze aldera.

Hernani, 2021eko apirilaren 15a
OGASUNEN ZINEGOTZI DELEGATUA
M Isabel Sanchez Perez